

# Arbizuko Udal aldizkaria

# Arbizu

2010eko maiatza


## 2010eko UDAL AURREKONTUA

# Herritarrendako aurrekontuak

Arbizuko Udalak 3.137.490 euroko aurrekontua onartu du aurtengo jardunaldirako. Honetan, gai sozialek garrantzia berezia hartu dute; izan ere, diru horretatik heren bat baino gehiago, Lakuntzako Udalarekin batera egiten ari den 0 eta 3 urte arteko haur eskola egitera bideratuko da. Jakinaenez, lanen %80 Arbizuk ordainduko du, eraikina herrian gelditzen delako, gainerako %20a Lakuntzak jarriko du. Kontuan hartu behar da bi herrien artean egitean, mantenua askoz merkeagoa izango dela. Gainera, Nafarroako Gobernuaren %65eko diru-laguntza jasoko da.

Mendi bide eta basoko hobekuntzek ere pisu handia hartu dute aurtengo udal aurrekontuan. 140.000 euro biderako dira Arbizuko basoko lanetan —diru-laguntza %75ekoa izanen da— eta 70.000 euro Mezen-go borda zaharberritzeko. Azkenik, uharka jarri eta uda partean Lezizan bainu gunea sortzeko asmoa ere gauzatuko da. Horretarako, 40.000 euro bideratuko ditu Udalak.

Kultur arloari dagokionez, udal txeko ganbaran liburutegia egitera 75.000 euro bideratuko dira; eta, internet herritarrei zabaltzeko 60.000 euro. Bi egitasmo horiek Espainiako Planaren bitartez ordainduko dira. Gainerako gai sozialek ere jarraipena izango dute, hala nola,



Arbizuko udal aurrekontuen azken bost urteotako bilakaera ikus dezakegu grafika honetan. Agerian gelditzenenez, aurtengo aurrekontua azken bi urtetakoa baino txikiagoa da. Gainera, 0-3 urteko haur eskolako partida udal aurrekontutik kentzen badugu, aurtengoa da azken lau urtetako txikiena.

herriko festak eta erromeriak, kultur jarduerak, ludoteka, kirol jarduerak, euskara jarduerak, UEMA... eta beste zenbait. Bakoitzak bere partida dauka.

### Hirigintza

Aurrekontua guztiaren %10 baino gehiago, partikularrek sustatutako hainbat urbanizazio lanak egiteko erabiliko da. Hasieran, Udalak hartuko du lanen ardura, baina gero herritarren bizkar izanen da aurrekontua eta, atzera, inbertitutako diru guztia berreskuratuko du Udalak.

Udal Plan berria egiteko 55.000 euro bideratuko ditu Arbizuk. Horretarako %95eko diru-laguntza izanen du.

Lur erreserba bat izatea egoki jo du

udalak, eta horretarako, 200.000 euro inbertituko ditu lur eremu bat erosteko.

### Herria edertu

Herriko kaleak txukuntzeko asmoz, plaza inguruko 4 zabor-edukinontzi lur azpira sartzeko sistema hidraulikoa jarriko da. Aurtengoa, lehengo saiakera izanen da sistemaren funtzionamendu ezagutu eta, egokia irudituz gero, pixkanaka herri guztira zabaltzeko. Horretarako, 25.000 euroko partida aurreikusi du. Bide, lorategi eta parkeetako zaintze lanetarako, berriz, 12.000 euro bideratuko ditu.

Ondorengo orrialdeetan Arbizuko Udalaren 2010eko aurrekontua zehaztasunez azter dezakezue.

# Arbizu Udalak ez du arazo ekonomikorik

Arbizuko Udala Estatuko 80 udal zorpetuenen zerrendan agertu da. Hala ere, sailkapen horretan 74. postuan agertu den arren, Udalak lasaitasuna helarazi nahi die arbizuar guztiei. Izan ere, sailkapena egiteko garaian, iazko abuztuan, industrialdeko lanak zirela medio, hiru milioi euro zor zituen Arbizuk; gaurko egunean, ordea, bi milioi ordaindu ditu eta milioi bat baino ez du zor. Zehazki, udalaren zorra 1.236.764 eurokoa da egun. Diru hori guztia bankuei zor die, eta maileguz bitartez ordaintzen ari da.

Nabarmendu beharra dago, Arbizuko Udala egunean dagoela ordainketa guztietan, hala nola, soldata, hornitzaile eta kontratatuko zerbitzu guztietan. Alde horretatik, beraz, ez dauka inolako zorrik.

Horrez gain, industrialdeko partzelak saltzeko ditu, eta saltzen dituenean 2 milioi euroko irabaziak izango dituela aurreikusten da. Dagoeneko, 2.100 m<sup>2</sup> salduta daude eta 4.500 m<sup>2</sup>-en negoziazioak nahiko aurreratuak daude. Salmenta horrek 842.160 euroko irabaziak ekarriko ditu.

Azkenik, txarrenera ere, herriak ondare sendoa dauka egoera larri bati aurre egiteko: industrialdeko enpresen mintegia, 2.400 m<sup>2</sup> hiri lur, Agoonia etxea, 1.000 m<sup>2</sup>ko lokala haurtzaindegiaren azpian... eta beste. Nola nahi ere, azkeneko aukera hori guztiz baztertu du Udalak, ez baitu horren beharrik. Beraz, argi esan daiteke Arbizuk zorrik handienak garbitu dituela eta bideragarria dela Udalaren egoera ekonomikoa.

Azken urteotan herrian egin diren lanak ordaintzeko, bost mailegu ordaintzen ari da Arbizuko Udala.

	ZERTARAKO	HARTUTAKOIA	URTEKO AMORTIZAZIOA	URTEKO INTERESAK	EGUNGO ZORRA	ORDAINTZEKO EPEA
MAILEGUAK	Agooneko Etxea	222.374,00	11.196,00	1.728,00	176.263,48	2025/02/01
	Ur hornidura	249.005,25	12.600,00	3.240,00	227.124,56	2026/12/29
KREDITUAK	Olatzea Hotela	455.542,40	23.975,92	5.860,00	401.596,58	2026/12/29
	Industrialdea	350.089,74	18.425,76	4.480,00	308.631,78	2026/12/29
	0-3 haur eskola	113.000,00	*	9.000,00	113.000,00	2010/09/30
	<b>OSOTARA</b>	<b>1.390.011,39</b>	<b>66.197,68</b>	<b>24.308,00</b>	<b>1.226.616,40</b>	

**OHARRA:** mailegu eta kredituen arteko ezberdintasuna. MAILEGUA: Udalak eskatutako diru guztia jasotzen du, eta interesak eta amortizazioa hilabetero ordaintzen ditu. KREDITUA: Banku edo kutzak eskatutako diru kopurua nahi duenean erabiltzeko uzten dio Udalar. Amortizazioa eta interesak erabilitakoaren arabera ordaintzen dira.

\* Haur eskolako kreditua irailean bukatuko da, Nafarroako Gobernuak diru-laguntza eman bezain pronto. Hori dela eta, ez da amortizatzen, soilik interesak ordaintzen dira.

## 2010eko udal aurrekontua

### DIRU-IRTEERAK

0-3 gelaren obra	1.200.000,00
16. exekuzio unitatearen urbanizazioa	350.000,00
Lur erosketa	200.000,00
Mendi bide eta basoko hobekuntzak... <sup>(1)</sup>	140.000,00
Liburutegia	75.000,00
Mezerengo bordaren obrak	70.000,00
Sakanako Mankomunitateko kuota	64.000,00
Festak eta erromeriak	60.000,00
Internet	60.000,00
Udal hirigintza planaren erredakzioa	55.000,00
Langileen gizarte segurantzaren kuota	50.000,00
Alminteen soldata	45.000,00
Idazkariaren soldata	45.000,00
Lezizako bainu gunea	40.000,00
Enplegu bulegoko langileak	34.000,00
Hautetsien soldata	33.000,00
Kultur jarduerak	26.000,00
Landa hotelaren maile. amortizazioa	25.000,00
Lur azpiko zabor-edukiontzia	25.000,00
Argiteria publikoaren energia-kontsumo	24.000,00

Administrariaren soldata	23.000,00
Segurantzaren mutualitate (MONTEPIO)	21.420,00
Oinarr. Gizar. Zerbi. Mank. kuota (MSSB)	20.855,00
Kiroldegiko obrak	20.000,00
Lur mugimen. maileg. amortizazioa	19.500,00
Andra mari ikastolari ekarpena	18.980,00
Higiezinen zaintza eta konponketa	17.119,00
Katastro zerbitzua	16.500,00
Ekonomia aholkularitza zerbitzua	16.000,00
Hirigintza aholkularitza	15.000,00
GKEri ekarpena (Palestina)	15.000,00
Kirol jarduerak	13.000,00
Ur sare orokorraren maile. amortizazioa	12.500,00
Bide, lorategi eta parkeetako zaintze lanak	12.000,00
Agoonia etxea eta bordaren maileg. amortizazioa	10.500,00
Alkatearen soldata	10.000,00
Publizitate, iragarki eta propaganda	10.000,00
Landa hotelaren altzariak eta dekorazioa	10.000,00
Argiteria publikoaren mantenua	10.000,00



Lakuntzako Udalarekin batera eraikitzen ari diren haurtzaindegiko lanak martxa onean doaz. Eraikinaren azpian, 1.000 m<sup>2</sup>ko sotoa eginen da, Arbizuko Udalak etorkizunean izan ditzakeen beharretarako.



Bestelako transferentziak	10.000,00
Askalatsen ekarpena	10.000,00
Euskara jarduerak	9.000,00
Landa hotelaren maile. interesak	8.000,00
Zerbitzu juridikoa, gestoria...	8.000,00
Cederna Garalur (urteko kuota)	7.500,00
Jubilatuen klubeko argindarra	7.000,00
Lur mugimen. maileg. interesak	6.500,00
BOE kredituen interesak (VPO)	6.000,00
Udal. ondasun higiezinaren aseguruua	6.000,00
Artxibategia informatizatzea	6.000,00
Familien dohainak	6.000,00
UEMAren diru-laguntza	5.741,00
Ur sare orokorraren maile. interesak	5.000,00
Bulego materiala	5.000,00
Altzariak, bulego eta laneko tresnak	5.000,00
Hiri-altzariak	5.000,00
Makineria eta lanabesen erosketak	5.000,00
Galtzagorri ludotekari ekarpena	5.000,00
Eskolen ekarpena	4.625,00
Agoonia etxea eta bordaren maileg. interesak	4.000,00
Aldizkaria	4.000,00
Udaletxeko gasa	4.000,00

Lan babestua	4.000,00
Zizkerteri ekarpena	4.000,00
Kiroldegiko ekipamendua	4.000,00
Zerbitzu informatikoa (gestio programa)	3.700,00
Makina eta ibilgailuen zaintze/konponketa	3.500,00
Maileguaren formalizazio gastuak	3.000,00
Igogailua eta gas galderaren mantenua	3.000,00
Udalaren ondasun higiezinaren argia	3.000,00
Udaletxeko telefonoak	3.000,00
Erantzukizun zibileko aseguruua	3.000,00
Ikastola: zaintze eta konponketa lanak	3.000,00
Informatika mantenua	2.500,00
NAO eta hedabideen harpidetza	2.500,00
Higiezinaren erregaia	2.500,00
Aldabide Elkarteari ekarpena	2.500,00
Jubilatuen klubeko zaintza eta konponketa	2.500,00
0-3 eskola mailegua. Interesak	2.000,00
Hautetsien dietak	2.000,00
Bestelako gastuak (protokolo....)	2.000,00
Juridikoa, auzibidea... (hirigintza)	2.000,00
Sareen mantenua eta konponketa lanak	2.000,00
Garbitasuneko produktuen hornidura	1.600,00
Arratoi-hiltze zerbitzua	1.600,00
Hautetsien sakeleko telefonoak	1.500,00
Langileen arropa	1.500,00
Derrama A.S.U.E. - A.S.U.N.	1.400,00
Erregaia	1.100,00
Udalaren ibilgailuen aseguruua	1.100,00
Lan arriskuen prebentzioa	1.000,00
Jarduera sailkatuen txostenak	1.000,00
Eskola: zaintze eta konponketa lanak	1.000,00
Araztegia eta ur-ponparen argia	1.000,00
Jubilatuen klubeko altzariak	1.000,00
Banku-zerbitzuak	1.000,00
Sokatira taldeari ekarpena	900,00
Eskolen argindarra	800,00
Zaborra	700,00
Auzolanen aseguruua	700,00
Langileen sakelako telefonoak	500,00
Langileen dietak	500,00
NUKF-ren kuota	500,00
Makinen alokairua	500,00
Material teknikoa	500,00
Enpresa-mintegi eta udaleko telefonogunea	500,00
Hautetsi eta langileen seguruak	300,00
Garraio-kostuak eta bestelakoak	300,00
Familia laguntzaren derrama	300,00
Derrigorrezko dirubilketa gastuak	250,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>3.137.490,00</b>



# 2010eko udal aurrekontua

## DIRU-SARRERAK

0-3 obrarako diru-laguntza	670.000,00
BOEren salmenta (VPO)	394.491,00
16. Exekuzio Unitatea: gastuen itzulera	350.000,00
Toki Hogasun Fondoa	260.000,00
Erainkuntza eta obren gaineko zerga (ICIO)	200.000,00
Hiri kontribuzioa	125.000,00
Lakuntzako Udala (0-3 ekarpena)	106.000,00
Industrialdeko lursailen salmenta	103.381,00
Baso-lanetarako diru-laguntza	100.000,00
Zirkulazio zerga	68.000,00
Liburutegirako diru-laguntza (Estatuko diru-laguntza 2010-2011)	63.500,00
San Juango bidearen urbanizazioa (Estatuko diru-laguntza 2009-2010)	54.200,00
Internet diru-laguntza (Estatuko diru-laguntza 2010-2011)	53.000,00
Udal Planaren N.G.aren diru-laguntza	50.000,00
Ibai ondoko parkearen diru-laguntza	50.000,00
Borda eta mendibideen obrarako diru-laguntza	50.000,00
Bestelako sarrerak	50.000,00
9. Exekuzio Unitatea: gastuen itzulera	50.000,00
Hilerrirako diru-laguntza	40.000,00
Ur hornidura	26.000,00
Obretarako diru-laguntza, enplegu bulegoa	25.449,00
Ekonomia Jardueren gaineko Zerga (IAE)	22.500,00
Auzolanak	21.000,00
13. Exekuzio Unitatea: gastuen itzulera	20.000,00
Udalbatzako hautetsien diru-laguntza	19.000,00
Larren ustiapena	15.000,00
Ur sare orokorra kateatzea	12.000,00
Bide publikoen okupazioa	11.000,00
Lur zoru publikoen okupazioa	10.000,00
Kiroldegiko obren diru-laguntza	10.000,00
Hiri-lurren salmenta	10.000,00
Energia berriztagarria jartzeko diru-laguntza	10.000,00
CAN fundación	9.000,00
Segurantzza mutualitatea (MONTEPIO)	8.300,00
Festetarako ekarpenak	7.000,00
Kiroldegiko tabernaren alokairua	6.000,00
BOE interesen eta gastuen itzulera (VPO)	5.009,00
Sailkatutako jardueren txostenen diru-itzu	5.000,00
Kirol jardueretarako ekarpenak	5.000,00



Presaren egin eta uda partean Lezizan bainu gunea sortzeko asmoa ere gauzatu da. Horretarako, 40.000 euro bideratu ditu Udalak. Behean, udalarenak diren Agoonia eta borda.



Hirigintza txostenen diru-itzulera	5.000,00
1. erabilera baimena	5.000,00
Kultura jardueren diru-laguntza	4.200,00
Telefonikaren kanona	4.000,00
Kiroldegiko alokairua	4.000,00
Egur loteak	3.800,00
Landa kontribuzioa	3.000,00
Gainbalio zerga (IVA)	3.000,00
Kultur jardueretarako ekarpenak	2.500,00
Jubilatuaren elkarteko diru-itzulera	2.000,00
Irekiera baimena	1.000,00
Garabiak, aldamiok...	1.000,00
Estatuaren tributoak	1.000,00
Justizia Ministerioaren diru-laguntza	720,00
Jubilatuaren elkarteko alokairua	700,00
Postu, barraka eta salmenta-etxolak	600,00
KGNiaren dirulaguntza-kirola	300,00
Errekargoak	300,00
Fotokopiak, zigiluak, eta abar	120,00
Agoonia etxearen alokairua	120,00
Isunak, zigorrak	100,00
Beste interesak	100,00
Bankuko kontuen interesak	100,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>3.137.490,00</b>

ARBIZUKO UDALA



MARDA herri palestinarrekin anaitua